Bizkaiera

Euskarak, Euskal Herriaren mutur bietan daukaz euskalkirik desberdinenak, eta euskara batuarentzat, inon izatekotan be, hor dare eskribakerako hizkera standard batera eroateko eragozpenak.

Baina, bizkaiera esaten danean, ze bizkaiera? Hor dago kakoa. Bizkaian era bat baino gehiago dira eta aditzez alkarregandik hain urrin ez badabiz be, inoiz badira aldakuntzat, batez be berbetan, deklinabideetan, fonetikan eta abar. Txorierritik Arratiara edo Arratiatik Markiñara, naiz Markiñaldetik geografiaz Gipuzkoakoa dan Debarru-guenera bada aldia. Zuberoakoak be badaukaz holako aldiak, edonongoak dituan legez. Baina, besteotan, naiz nafar-gipuzkeran edo daiz lapurtar-nafarroa beherean, aspalditik jarraitu dabe eskribakera elkartuago bat; baina bizkaieragatik, zoritxarrez, ezin gehinke holakorik esan. Mogel eta Añibarrok markatu eben bidea, nolabait jarraitu eben P. Astarloa, Uriarte eta Fr. Bartolomek, batzuk izatez Markiñaldekoak ziralako eta besteak era hortara errenditu. Baina, joan zan mendearen azkenaldetik, Txomin Agirrek edo izan ezik, bakotxak bere herri edo bailadakoari oratu eutsan eta ondorenez nahasketa izugarria sortu zan.

Euskaldunon artean, argi dago berbatsuak garela, baina irakurlerik urri. Euskaraz eskribitzen dabenen artean be, eskribitu bai baina irakurri ez. Behintzat, argi dago alkarren barririk ez dakigula. Horregatik, sarri bizkaieraz eskribatu dogunok be, inoiz hortan jarraitzeko gogoak be joaten jakuz, ze zertan edo zertaz dihardugun be ez dakigulako.

Hori aitortzeaz ez dot gura euskararik jakin barik bizkaieraren alde paratzen diranak aintzat aintzat hartzerik. Bai, irakurle, sinistu ezinezkoa baderitzazu be, holakoak be badira. Esate baterako, egun gutxi dala agurtu ninduan Bilboko kalean Luis Arana Goiri zanaren biloba batek eta hara zer esan eustan: "Juan, sé que estás haciendo muy buena labor por el euskera y me alegro. Pero has de saber que yo no estoy con el ***batua,*** *yo estoy por el vizcaino". Nere erantzuna erraza izan zen: "Tú no estás por el vizcaino; tú estás por el castellano. De lo contrario, en este momento ambos estaríamos hablando en vizcaino"*

Burubide hori da guretzat negargarriena. Euskararik jakin barik edo erdaraz eskribatuz edozein Urkiritar timoratok daukala berbia bururatzen jakona esateko; bere hizkuntzan dan herri bati erderaz edo hala-holako eritziegaz informatzeak dakarren kalteaz jabetu barik. Era batera edo bestera eskribitzeaz konforme ez dagoenak emon deila exenploa berari deritxon eraz eskribituaz, edo nahi badau idatziaz.

Euskaraz egiten dogunok, abertzaleen artean be bitxo arraroak garen artean, ez dogu gauzonik egingo. Ze, gu ez gara konformatuko "¡Hola mutil" hasieran eta "Agur" amaieran esanez gaztelera barra-barra egiten dabienakaz.

Horrez gainera, gaur egun bizkaieraren zale diran eskribatzaile edo idazleen artean bertan, gehienen artean behintzat, bizkaizaletasuna ultra bizkaierara eroan dabenak badira, inon diran formarik zailenak eta gipuzkeratik ahalik eta urrinen ibiliz. Inoiz literaturan gihartu zan bizkaiera, Markinaldekoa izan zan; era berean gipuzkeratik eta euskara batutik urren dagoena. Horregatik, setakeriak alde batera lagata, bizkaiera idatzia zerbait gorpuztuko bada, hortatik behar leuke.

Oraingo idazleen artean, bizkaieraren alde dihardueenak, era berean herriaren euskara eta honen defensa erabiltzen dabe ahotan, baina gehienetan jaun ber-berak dira herriagadik garbikeriz urrintzen diranak: berba erabiltzen lotsatzen diranez, hitz (edo itz) erabiliaz eta gotzaiña, izparringia... eta abar eta abar, ez Bizkaikoak eta ez herriarenak ez diranak erabiliz.

Gauzak hotz-hotzean eta setakeririk barik begiratu nahi badoguz, zelabaiteko bizkaiera batua, nere eritziz, beharrezkoa dogu. Bizkaiera batua esateaz, idatzitakoaz dihardut, ez ahozkoaz. Baina, kontuan izanik, ahozkoaren lagungarri izan behar dala idatzia bera. Horretarako, berriz be Markinaldekoan oinarritu beharra izango dogu. Azkenerako, bizi dan euskara hobeto aprobetxatzea besterik ez da. Eta, Bizkaian bada indar aprobetxagarririk.

Lehendik bizkaiera dakianak baturantz joan nahiko baleu, nere ustez, bide errezagoak aurkituko litukez bere ingurukoaren erregelak ezagutuaz joatea. Bestela, sarri gertatzen da bata nahastu eta bestea ikasi ez. Azken baten, axola jakun bakarra euskararen iraupena da, eta euskara bizirik dagoenetik idazkera batu standard batera eroateko beharrezkoa jaku holako mailakatzea.

Hontaz inor harrituko balitz be, ez uste eritzi hau atzo goizekoa danik, eta euskara batutik apartatzearen pentsamentuz asmatua. 1969an, Bizkaian alfabetatze kanpainetan erabili behar ziran arauetakoa da. Gero, praktikan hori bete ez bada, irakasle eta ikasleak heurak zuzenean baturantz nahi ebelako izan zen. Baina, gure kontseiluak beti bestalderakoak izan ziran.

Bizkaiera idatziaren batasuna (edo gutxienez batasunerako urreratze bat) mailakatzea eta hortik euskara baturako bidea, behar beharrezkoa deritzagunа, nola ikusten dogunari buruz urrengoan jarraituko dogu.

Juan SAN MARTIN

La lengua hablada requiere su normativa escrita si se ha de orientar a la enseñanza o al desarrollo literario. lo que hoy se pretende con el **euskara batua,** no es ni más ni menos que lo que en su día hizo Nebrija al establecer las reglas del castellano escrito. La diferencia está en que aquél lo hizo cuatro siglos antes y basándose en una lengua popular en plena expansión, y nosotros con un retraso considerable y en una lengua fragmentada en dialectos que han desarrollado una literatura desigual. De lo que no hay duda es que la unificación escrita es de vida o muerte para una lengua y más para una tan restringida como es el vascuence. Ello no quita que en algunos casos merezcan un tratamiento particular algunas de las variedades, por la problemática que conllevan en su contexto social hablado y la relativa tradición escrita. Este es, por ejemplo, el caso del llamado vizcaino, que también se habla en casi toda la cuenca del Deva, en Guipuzcoa.

Ha habido un vizcaino literario con un sistema verbal bastante común que estaba basado en las formas de la comarca marquinesa, cuya trayectoria marcaron Moguel y Añibarro y continuando por Domingo de Aguirre (en **Kresala**), pasando por Pedro Astarloa, J.J. Moguel, Uriarte, Fr. Bartolomé... a cuya línea tendrían que volver los escritores que hoy aspiran o abogan por el vizcaino, pues, al propio tiempo ayudarían a un mayor acercamiento a la lengua literaria común.

La literatura requiere del escritor un tacto particular y la conexión entre la lengua hablada, la tradición escrita y la corriente general de los escritores de su época para encajar en el contexto social. Siendo la mejor manera el ejercicio en la práctica, escribiendo en la misma lengua como modelo. Y que no nos venga ningún timorato Urquiri incordiador diciéndonos en castellano cómo hemos de escribir en vascuence, con el beneplácito de quienes por lo visto les gusta revolver lo ajeno en lugar de mostrar comprensión y permitir más espacio en euskera para conseguir los modelos ideales de la fe con obras. Pues, el euskera, necesita ser hablado y escrito para sus reglas internas.

Erroma ala Athenak?

Bi hitz hauk, bi hirien izenak dirade, eta hauien bidez mundu osoan gizartean ekhiteko bi modu symbolizatzen dira. Orain bi ekhiteko mdu hauien arteko' hautapen bat egin behar dugula ez dioskute, norbaitek pentsa lezaken bezala kultura zaharrak eta literaturak ikhertzen dituten ikhertzalariek, aitzitik lehen-baitlehen hautapen hau egin behar dugula' Kybernêtikêan ari diren Tekhnika berriaren jakintzalariek hunela derrakute, zeren-eta, behar bada, jadanik, egin behar dugun erabaki huntara berantegi ethorten bait gara. Ikhertzalari hauiek, iphar-amerikarrek bezala europarrek ere, Tekhnika berriaren desarroiloak zein aldakuntza handi ekhar dietzakuten ikhusiaz, gure pentsatzeko, eta hüntatik ekhiteko, eredu osoa ere, aldatu behar dugula ikhusten dute. Ala Athênetako izpiritua onhartzen dugu, eta huntara gure ondorengoentzat ethorkizun argitsu bat aphailatzen dugu, ala ***Erroma*** *hitzaz symboliza dezakegun izpiritu praktikoaz, Erroman bezala soilik luxus materiala ekhoitziko dugu, eta batera gizarteriaren izpituzko praubezia, eta Erroman bezala gizarteriaren parte handi bat' luxu huntan alfer bizi izan ditezentzat' materialezko praubeziaraino ere bultzatuko dugu.*

Aurkhaz-aurk dagozen bi polo hauiei buruz A.M. Hilton amerikar ikhertzalariak hitz egiten derauku, bainan hauien bidez symboliza dezakegun antiithesia, gure Historia hasten denetik bethi agerten zaiku. Athenetarrentzat helburua' edertasuna eta Munduaren mystêrioen ikhuskatzea zen. Heientzat gauza praktikoak aiphatzekoak ez ziren. Gizon libro batentzat Kosmoaren legeak ixtudiatzea' ta jainkoen edertasunari begiratzea ekhintza digneak ziren, eta huntara gure kultura osoaren basiak ezarri ziтuzten.

Erromatarrek' mundu osoa menperatu nahi ukhan zuten, eta mundua bere lege praktikoen azpian iphini zuten, erromatarrak oso gizon praktikoak ziren, bainan kulturaren kreatzekotz beharrezkoa den ameslarien gogoa ez zuten. Erromatarrek graikoen kultura pithêkoek bezala mimetzen baizik ez zekiten.

Alta erromatarren imperiuaren ostean epokha ilhun-ilhun bat, Erdi-Aroa ethorri zitzaikun, eta ilhunpeak hamabortz mendetan pairatu ditugu.

Gaur egunean, ethorkizunean dadukagun gizartearentzat' perila askozaz handiago ta sakonago izan liteke, baldin-eta geuk Athênetako izpiritu gu baithan sar-arazten ez ba geneki. Erroma hitz huntaz' gizon praktikoek maithe dituzten gauza guztiak symboliza ditzazkegu, gizartea batez diruaren, urrhearen edo produkzionearen bidez strukturatu behar dugula uste dutenen izpiritua da. "Lan" hitza pyramidearen goiko punktuan ezarten dutenen mundua da, dirua verthute guztien izaria dela uste dutenena.

Huni aitzi' graikoek gauza praktiko askoren asmatzaileak izan ziren, Arkhimêdes zenez, bainan ber haukiek hunela asmatzen zituzten gauzak' aiphatzeko digneak ez zirela uste zuten, eta Arkhimedêsek bezala' mathêmatika abstraktoan ari izaitea maithatzenago zuten.

Halakotz gaur egunean J.M. Hiltonek erraiten duenez: ***"Gurutze-bide batetan gagotza. Bide batek Athênetarat eraman gaitzazke, eta hau' hunela dateke non athênetarrek hura soilik amets egin bait zezaketen;*** *bertze bideak* ***Erromara eramanen gaitu, bainan antxinako Erroma izan zen baino izigarriago den egokera batetara".***

"Beraz, ala Graikherria, ala Erroma — hauxe da egin behar dugun hautapena, eta hautapen hau orain berton egin behar dugu, zeren— eta jadanik atzo egin behar bait genuen, eta haren egiteko bihar, berantegi dateke".

Ba dakit, nola hunelako hautapenaren egitekotz behar den izpirituzko izaikera phiztea euskaldunetan oso zaila den, batez ere euskaldunek erromatarren borrokakhideak izanki-eta egun daino, hunelako izpiritu praktiko materialista zaintzen bait dute, non "euskal indarra" izenaz' bortxa brutoenaren praktikak aurkhezten bait ditugu. Ethorkizuneko munduan, lana robotek eginen dukete, eta nola langilerik izanen ez bait dira, halatan ere gure buruari hunelako egokeran ethor lekidigunean zer izan nahi dugun galde egin behar diogu, beraz roboten jaubeak, ala roboten morroinak izan nahi dugun. Ezen maithe dezagun, ala ez, Kybernêtikêaren iraultza guganatzen da, eta ethorkizuneko munduan garailari izanen da. Hala-ere gure mentalitatean egin behar dugun iraultzazko aldakuntza hau' gure pentsatzeko eredu kulturaletan datza. Gaur egunean erromatar izpiritu zaharra' Amerikan eta Errusian dugu, eta anglarazko praktikotasunean ethorten zaiku, bainan mundu hortan anglo-saxoin ikhertzalari hospetsuenek ba dute ikhusten nola mundu berri lorios bat empsykhatu behar duen argia, orain lehen bezala Athêna klasikoan dagoen, egoitenago ta egonenago.

Federico KRUTWIG SAGREDO

La invitación a que hagamos una elección de profundas consecuencias entre el espíritu de Atenas o el de Roma no es una invitación que nos venga de los labios de ningún historiador del arte o de la Cultura, sino que nos la hacen hoy en día con insistencia tratadistas anglosajones, tanto ingleses como norteamericanos, que están preocupados por el futuro al que nos puede conducir, si no nos está ya conduciendo, el desarrollo de la nueva técnica guiada por la Cibernética, y sus adláteres la Informática y la Robótica.

O nos decidimos por el espíritu de Atenas, y cimentamos un futuro luminoso para quienes nos van a seguir, o si seguimos con el espíritu de Roma, llegaremos a una evolución aún más lúgubre que la que se desarrolló bajo el Imperio Romano, cuyo gobierno muy eficaz y buen organizador, pero animado por el espíritu de lo "práctico", tan sólo fue capaz de producir el lujo material y la pobreza humana.

¿Estos dos polos opuestos, que A.M. Hilton, llama con las pa[...] de **Atenas y Roma,** han [...] desde entonces en todo el des[...] de nuestra Historia europea, y [...] culminado en las sociedades [...] turadas por el criterio del **dinero** [...] **producción,** tanto si se llaman [...] talistas como socialistas. [...] nada se distinguen de las [...] puesto que para ellas el hilo [...] tor de la Historia es la produc[...] lucha económica contra la [...] leza.

Este predominio de **Roma** [...] **Atenas,** especialmente desde [...] Imperio Romano dejó de exi[...] mina toda nuestra mentalidad [...] rece que sólo los valores [...] cuentan, aún para nosotros [...] nueva revolución, empero [...] una nueva necesidad, al [...] que si hasta ahora toda la [...] se había desarrollado por [...] namiento del **"brazo"** (y de la [...] **gía física),** desde ahora en [...] en la Era Cibernética lo que [...] propone es una ampliación [...] cionamiento del **"cerebro"** [...] ello del **tratamiento de la** [...] **ción).** Si no sabemos dar [...] de cuál es en el fondo el [...] corremos el riesgo de co[...] en un nuevo Tercer Mundo [...] rando la fuerza bruta, el de[...] de la energía, en vez de [...] desarrollo de la inteligencia [...] justo tratamiento de la inform[...] Debemos saber que la [...] es una realidad tan real [...] fueron anteriormente la [...] materia.